

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Bigarren Hiruhilekoa 2019

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 **Lanbide**

Txosten honek, 2019ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erkundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia


Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)	8

Testuinguru Ekonomikoa

2019ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,3ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez hazkunde bera aurreikusten da

Eustatek argitaratzen duen kontu ekonomikoen aurrerape-nak adierazten du EAEko ekonomia %2,3 hazi zela bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta. Balio horrek lehen hiruhilekoarena berdindu du. Beraz, badirudi EAEko ekonomiak duela urtebete luze hasi zuen moteltzeko joera galgatu duela eta hazkunde erritmoan egonkortasuneko fase batean sartu dela.

Bigarren hiruhilekoaren datu aurreratua bat dator Ekonomia eta Plangintzak epealdi horretarako ezagutarazi zuen aurreikuspenarekin. Hiruhileko arteko terminoetan, datu aurreratua %0,6an kokatu da, hots, aurreko emaitza baino hamarren bat beherago. Hala ere, tasa hori aurreko bi hiruhilekoetakoa baino hamarren bat gorago dago.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko iraila" txostena

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %1,2 hazi zela 2019ko bigarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu gutxiago).

Espainiako Ekonomia %2,3 hazi zen 2019ko bigarren hiruhilekoan (aurreko hiruhileko urte arteko hazkunde tasa baino 0,1 puntu gutxiago).

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da 2019 urte osorako, 2018 urtean erregistratutako datuekin alderatuta. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2019 urterako Eurogunerako egindako aurreikuspena %1,1ekoa da, eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspena %2,3koa.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %2,3ko hazkunde aurreikusten du 2019 urterako eta %2,0koa 2020 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko iraila" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %5,6ko jaitsiera izan du urteko bigarren hiruhilekoan; -3.640 gizonezko eta -2.969 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2019ko bigarren hiruhilekoan (6.609 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 111.343 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %5,6koa izan da eta urte arteko jaitsiera %7,6koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 3.640 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta -2.969 pertsonatan emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 46.834 pertsonatan kokatu da eta 64.509 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.804); ondoren, 45-54 urte bitartekoaren artean (-1.640); 25-34 adin tartean (-1.411); 55-64 adin tartean (-893) eta 16-24 adin tartean (-861).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%7,8; -2.421). Ondoren, Bizkaia (-%5,0; -3.382) eta Araba (-%4,1; -806).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzeritarren kopurua %5,9an jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %5,5ean jaitsi da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehengo kasuan langabetu kopurua 17.530 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 93.813 pertsonatan.


Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak %7,5ean murriztu dira; jarraian Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabeak (-%6,1); Derrigorrezko ikasketak dituzten langabeak (-%6,0) eta Unibertsitate ikasketak dituzten langabeak (-%1,1).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honean, balore absolutuetan, langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza (-872); (ii) Janari eta edarien zerbitzuak (-529); eta (iii) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-484). Bestalde, aipatu beharra dago Hezkuntza sektorean izandako langabetu kopuruaren igoera (+472).

Afiliazioa Gizarte Segurantzari


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 973.417 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,4 altuagoa

EAEn 2019ko bigarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 973.417 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %1,4 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %2,1 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokionez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,0). Gipuzkoan, %33,5ekoa izan da eta Araban %16,5ekoa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 6.335 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; ondoren Gipuzkoa (+4.651) eta Araba (+2.156).


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, bigarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (%18,3); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (%14,3); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%10,5); (iv) Hezkuntza (%7,4); (v) Ostalaritza eta Administrazio Zerbitzuak eta Zerbitzu Osagarriak (biak %6,9). Hala ere, 2019ko bigarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera handiena izan duten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: (i) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (+8.158) eta (ii) Administrazio Jarduerak eta Zerbitzu Osagarriak (+2.046). Afiliatu gehien galdu dituzten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (-2.870) eta (ii) Beste zerbitzu batzuk (-1.310).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzeritarren kopurua %6,1 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 67.940 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %7,0koa da, afiliatu autoktonoena %93,0koa izanik. Atzeritarren artean, gizonen afiliazioa %6,5 igo da eta emakumezkoen afiliazioa %5,3. Lurralde Historikoei dagokionez, atzeritarren afiliazioa Araban %11,4 igo da, Gipuzkoan %5,4 eta Bizkaian %4,6.

Kontratututako pertsonak eta kontratuak

Bigarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %11,7 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 260.730koa izan da

2019ko bigarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 127.320koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %11,7 gehiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean %14,9ko igoera eman da eta emakumezkoen artean %8,4koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa


Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %44,5ak Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,9k Batxilergo ikasketak, %17,1ek Lanbide Heziketako ikasketak eta %14,9k Unibertsitateko ikasketak.

Adinari dagokionez, 2019ko bigarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %27,3ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek izan dute igoera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldea nabarmenduz (+%22,2).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %85,1a bertakoa da eta %14,9k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu gehiago). Atzerritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%39,0), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%24,0) eta Afrika iparraldekoak (%16,3).

Bigarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 260.730 kontratu erregistratu dira (kontratututako pertsonak

baino 2 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen igoera %14,9koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %8,2a kontratu mugagabeak izan dira eta %91,8a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %39,0 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,2 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da igoera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%23,3). Jarraian, Gipuzkoa (+%15,7) eta Bizkaia (+%11,6). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%51,1; 133.361); jarraian, Gipuzkoa (%29,2; 76.127) eta Araba (%19,7; 51.242).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%17,7); (ii) manufaktura industria (%15,2); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%10,8); (iv) merkataritza (%10,7); eta (v) administrazio jarduerak (%10,1). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%22,9) eta emakumezkoen artean ostalaritza (%22,4).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %9,6koa izan da eta enplegu tasa %51,3koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** %51,3koa izan da 16 urte edo gehiagoko populazioaren artean (%56,3 gizonezkoen kasuan eta %46,7 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 947.900ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 12.800 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 499.000koa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago) eta 448.900ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %2,0 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,1) 434.000 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%21,6) 36.800 okupaturekin. Hala ere, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bigarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (+%2,2 aurreko hiruhilekoari dagokionez).

Lurralde Historikoei dagokienez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (%53,2), jarraian Gipuzkoa (%52,7) eta Bizkaia (%49,9). Okupatu kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoerak hurrengoak izan dira: Araban %2,5; Gipuzkoan %2,2 eta Bizkaian %0,5.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%72,1). Ondoren, Industria sektorea (%21,2), Eraikuntza sektorea (%5,6) eta Lehen sektorea (%1,0).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %68,5ek kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %31,5ek aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %1,0 igo da eta aldi baterako kontratuen kopurua %2,9. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %81,3 lanaldi osoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu gutxiago) eta %18,7 lanaldi partzialekoak.

Bigarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** %9,6koa izan da (%8,7 gizonezkoen artean eta %10,5 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 100.300 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %5,6 gutxiago. Emakumezkoen kasuan jaitsiera 4.600 pertsonakoa izan da eta gizonezkoen kasuan jaitsiera 1.400 pertsonakoa izan da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%8,6); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%9,5) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%20,6). Aurreko hiruhilekoaren alderatuta, eboluziorik onena izan duen taldea, balore erlatiboetan, 25-44 urte edo gehiagokoena izan da %18,7ko jaitsierarekin.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%6,7), jarraian Araban (%9,8) eta Bizkaian (%11,3). Langabetu kopurua hiru lurralde historikoetan jaitsi da, Gipuzkoa nabarmenduz (-%13,6); jarraian Araba (-%12,2) eta Bizkaia (-%0,3).

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %48,4k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %51,5ek urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 2,7 puntu gehiago).

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %41ek derrigorrezko ikasketak ditu eta %29k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, talde bi hauek izan dira langabetu kopuruan beherapenik handiena izan dutenak (-2.308 eta -5.803 pertsona, hurrenez hurren).

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %78,6 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerriarrak (%20,7) eta Europar Batasunekoak (<%1).